

**(1994) BERTSO BERRIAK  
ZABARRE ITSASLAPUR LEZOARRAK**

**JARRIAK:  
«ALZATEKO GAINETIK....»**

Otsailaren bostean, Martinique uharteko Fort-de-France-n oporretan nengoela Zabarre kapitainarekin egin nuen topo. Gau osoa taberna zuloetan igaro genuen, pattar zurruten artean kontu-kontari. Aipatu zidan nola azken aldean Chiapasen ibilia den arma kontrabandoan, Mexicoko armadari adarra joaz. Nigandik jasotako berriekin bertso hauek bota zizkidan adio gisa:

Alzateko gainetik  
Torrejil parera,  
errepide txit beltza  
doaz egitera.

Negarra helduko da  
baserri aldera,  
dirudunen aurrean  
makurtzen bagera.

Sudurpe mukitsua  
jaun eta jabe;  
pakean utzi gaitzan  
behar du jarabe.

Ekolojistak batu  
berandutu gabe,  
gaurko burruka baita  
geroaren habe.

**PUTREKABIAZPI**